# OSOKO BILKURA 2022-12-15

**Organoa:** Udal Plenoa
**Izaera:** Ohikoa
**Deialdia:** Lehena
**Eguna:** 2022-12-15
**Ordua:** Hasiera 18:30etan.
Bukaera 19:15etan.
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

Alkatea: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

.- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
.- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
.- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
.- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
.- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
.- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
.- Axier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
.- Karmelo Guridi Gallastegi jauna (EH Bildu)

.- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
.- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
.- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
.- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
.- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)
.- Angel Biain Peña jauna ( EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna
Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

Ez dira bertaratu:
.- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)
.- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)

## AZTERGAIAK

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-11-24ko ohiko osoko bilkuraren akta, (9.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: osoko Bilkurako ohiko bilkuren 2023ko egutegia onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: brigadako peoi gidari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: eraikinen mantenu teknikari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023rako Lanpostuen Zerrenda onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023rako Plantilla Organikoa onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023ko aurrekontua onartzea, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2022ko abenduaren 12an.

8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: San Martin Fundazioak elkarteari lagatzen dion eraikinaren akordioa onartzea, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. 2022ko urtarrilaren 1ean, zuzenbidezko biztanleriaren berri ematea: 11.515 biztanle.
12. 2022ko azaroaren 21etik 2022ko abenduaren 9ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 1261 zenbakitik 1360 zenbakira.
13. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (28., eta 29. saioak).
14. Galderak eta eskaerak.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

**BILERA:**

**1.- Onartzea, hala badagokio, 2022-11-24ko ohiko osoko bilkuraren akta, (9.2022).**

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2022ko azaroaren 24ko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

**2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: osoko bilkurako ohiko bilkuren 2023ko egutegia onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretarako 2023ko egutegia onartzea.

IZASKUN QUEREJETA AGIRREk, Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntzako teknikariak ziurtatzen du 2022ko azaroaren 30eko dataz Pertsonal eta Barne Antolakuntzako Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretarako 2023ko egutegia.

I.- Kontuan hartuta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, Osoko Bilkurak hilean behin, gutxienez, ohiko bilkura egingo du, 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak eta probintziako diputazioak; bi hilean behin, 5.001 eta 20.000 biztanle dituzten udalerrietan; eta hiru hilean behin 5.000 biztanle arteko udalerrietan.

II.- Osoko bilkuretarako deialdia, gutxienez, bi egun baliodun lehenago egin behar da, presako bilkura berezietarako izan ezik. Azken kasu honetan, osoko bilkurak berretsi beharko du presako deialdia.

III.- Kontuan hartu behar da Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 84. Artikulua:
"*Eztabaidarako eta, hala badagokio, bozketarako oinarri gisa erabili behar den gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa korporazioko kideen eskura egongo da deialdia egiten den egunetik bertatik korporazioko idazkaritzan.*

*Horrenbestez, korporazioko edozein kidek aztertu ahal izango du, bai eta hura osatzen duten dokumentu zehatzen kopiak lortu ere, baina originalak ezin izango dira dauden lekutik atera.*"

Gaia azterturik, osoko bilkurari 2023ko ohiko bilkuren egutegia hau proposatzen zaio:

**Lehenengoa.**- Onartzea, Osoko Bilkuraren 2023rako ohiko bilkuren egutegia, xehetasun hauekin:

2023ko urtarrilaren 26a
2023ko otsailaren 23a
2023ko martxoaren 30a
2023ko apirilaren 27a
2023ko maiatzaren 25a

**Bigarrena.-** Batzorde informatiboen egutegiak aurreko egutegia kontuan izanda jarriko dira, kontuan harturik Osoko Bilkurako deialdia gutxienez 2 egun baliodun lehenago egin behar dela eta deialdia egiterakoan espedienteak osorik egon behar duela.

**Hirugarrena.-** Udal teknikariek deialdia egiten den egunetik gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa zinegotzien eskura izan beharko dute.

---

Gaia aztertuta, eta pertsonal eta barne antolakuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: brigadako peoi gidari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Brigadako peoi gidari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea.

IZASKUN QUEREJETA AGIRREk, Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntzako teknikariak ziurtatzen du 2022ko azaroaren 30eko dataz Pertsonal eta Barne Antolakuntzako Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

Brigadako peoi gidari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea.

20/2021 Legeak, abenduaren 28koak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, hurrengoa arautzen du:

*“2. artikulua. Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak.*
*1. 6/2018 Legeak, uztailaren 3koak, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimentzen du eta barne hartuko ditu lanpostu estrukturalak, administrazio publikoetan jasota dauden lanpostuen zerrendetan, plantilletan edo giza baliabideak antolatzeko beste moduren batean egon edo ez, eta aurrekontu-zuzkidura dutenak, baldin eta 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan gutxienez aldi baterako eta etenik gabe beteta egon badira”.*

Brigadako peoi gidari plaza plantilla organiko eta lanpostuen zerrendan agertzen ez den arren, estrukturala eta beharrezkoa uste da eta egonkortze prozesu honetan sartu da. Hori horrela, plaza eta lanpostua sortu behar da LPZ eta Plantilla Organikoan.

Bestalde, 32/2021 Legegintzako Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoak kontrataziorako baldintzak aldatu ditu.

Lehenik eta behin, desagertu egiten da obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuak egiteko aukera. Horrela, iraupen mugatuko lan-kontratua ekoizpenaren edo langilearen ordezkapenaren zirkunstantziengatik baino ezingo da egin, eta aldi baterako kontratuen arrazoi justifikatua dagoela uler dadin, beharrezkoa izango da kontratuan zehatz-mehatz zehaztea aldi baterako kontratazioaren gaikuntza-arrazoia, kontratua justifikatzen duten inguruabar zehatzak eta aurreikusitako iraupenarekin duen lotura.

Halaber, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 23koak, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 15. artikuluan arautzen du:

*“2. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, produkzioaren inguruabartzat hartuko dira jardueraren noizbehinkako eta aurreikusi ezinezko gehikuntza eta gorabeherek, enpresaren ohiko jarduera izan arren, aldi baterako desoreka eragiten dutenean enplegu egonkorraren eta eskatzen denaren artean, betiere 16.1 artikuluan jasotako kasuei erantzuten ez badiete.*
*Aurreko paragrafoan aipatutako gorabeheren artean, urteko oporretatik eratorritakoak sartuko dira.*
*Iraupen mugatuko kontratua ekoizpenaren inguruabar horien ondorio bada, kontratuaren iraupena ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan. Sektoreko hitzarmen kolektibo bidez, kontratuaren gehieneko iraupena urtebetera arte luzatu ahal izango da. Kontratua legez edo hitzarmenez ezarritako gehieneko iraupena baino laburragoa bada, behin bakarrik luzatu ahal izango da, alderdiek hala adostuz gero, eta kontratuaren iraupen osoak ezin izango du gehieneko iraupen hori gainditu.*
*Era berean, enpresek produkzioaren inguruabarrak direla-eta kontratuak formalizatu ahal izango dituzte, noizbehinkako egoerei, aurreikus daitezkeen egoerei eta iraupen laburreko eta mugatuko egoerei erantzuteko, paragrafo honetan aurreikusitako baldintzetan. Enpresek gehienez laurogeita hamar egunez erabili ahal izango dute kontratu hori urte naturalean, egun horietako bakoitzean egoera zehatzei aurre egiteko beharrezkoak diren langileak alde batera utzita. Egoera horiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute kontratuan. Laurogeita*

*hamar egun horiek ezin izango dira jarraian erabili. Enpresek, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, kontratu horiek erabiltzeko urteko aurreikuspen bat helarazi beharko diete langileen legezko ordezkariei".*

Brigadan, gainera, badaude aldi baterako programa bitarteko eta errelebo kontratuko zenbait plaza amaitzear.

Hori guztia kontuan izanda, brigadako peoi gidari plaza bat sortzea beharrezko ikusten da Oñatiko Udalak dituen beharrei behar bezala erantzuteko.

I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean, TAOL) **90.1 artikuluak** honako hau xedatzen du:

"*Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, plantilla onartzea, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu guztiak barnean hartuta.*

*Plantillek arrazionaltasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioei erantzun beharko diete, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarriko dira; langile-gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrarekin ezartzen diren mugak gainditu.* "

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren **126.1 artikuluak** honako hau ezartzen du:

"*1. Plantilla horiek funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta aldi baterako langileentzat behar bezala sailkatuta dauden lanpostu guztiak hartuko dituzte, eta urtero onartuko dira aurrekontua onartzean, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikuluan adierazitako printzipioei erantzun beharko diete. Horiei erantsiko zaizkie aipatutako printzipioekin bat datozela egiaztatzen duten aurrekariak, azterlanak eta dokumentuak.*

*2. Plantillak honako kasu hauetan handitu ahal izango dira:*

*A) Gastuaren gehikuntza gastu arrunt hedaezinen beste unitate edo kapitulu batzuk murriztuta konpentsatzen denean.*

*B) Zuzkiduren gehikuntza lege-xedapenek ezarritako nahitaezko zerbitzuak ezartzearen edo zabaltzearen ondorio denean.*

*Paragrafo honetan ezarritakoak ez die kalterik egingo lege berezietan edo koiunturazkoetan jasotako muga espezifikoei.*

*3. Aurrekontua indarrean dagoen bitartean plantillak aldatzeko, aurrekontua aldatzeko ezarritako izapideak bete beharko dira.* "

II. Oñatiko udalak 2022ko aurrekontua onartu zuen 2021eko abenduaren 16ko osoko bilkuran eta behin betiko argitaratu zen 2022ko otsailaren 1eko GAO-n (20. Zenbakia) eta akats zuzenketa 2022ko otsailaren 2ko GAO-n (21. Zenbakia).

III. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, aipagarriak dira artikulu hauek:

14-18 artikuluak, aurrekontu orokorren gertuketa eta onespenari buruz.

21. artikulua. "*Langileen kredituak. Aurrekontuetako gastuen orrietan bildutako langileen gastuetarako ordainketa-kredituak honelakoak izango dira: a) Toki erakundearen administrazioan eta organismo autonomoetan, muga izaerakoak izango dira, bai kredituaren zenbatekoari dagokionean, bai plantilari dagokionean.*"

IV. Plantilla onartzea Osoko Bilkurari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2-i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

V. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen **21. artikuluak** honako hau xedatzen du:

*"2. Lan-kontratuko langileei dagokienez, aurrekontu-plantilletan dagozkien kreditu-zuzkidurak ere sartuko dira, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoaren arabera ordain daitezkeen ordainsari-kontzeptuen arabera ordenatuta".*

VI. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, **11. Artikuluak** honakoa xedatzen du:

*"1. Langile lan-kontratudunak dira, lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeko edozein modalitate erabilita, idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak. Iraupenaren arabera, kontratua izan daiteke finkoa, mugagabea de aldi baterakoa.*

*2. Estatutu hau garatzeko emango diren Funtzio Publikoko legeetan ezarriko dira langile lan-kontratudunek zein lanpostutan jardun dezaketen finkatzeko irizpideak, betiere, 9.2 artikuluan ezarritakoa aintzakotzat hartuta".*

VII. Azaldutakotik ondoriozta daiteke, udal Aurrekontuaren zati denez, onartzeko prozedura hauena bera da, baita jendaurrean jartzeko eta argitaratzeko izapidea ere. Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

**Lehenengoa.**- Hasierako onespena ematea 2023ko urteko plantilla aldaketari, brigadako peoi gidari plaza sortzeko (C2 taldea): laboral finko plaza. Ezaugarriak gainontzeko peoi gidari plazek dutenen berak dira.
**Bigarrena.-** Onartutako aldaketa jendaurrean jartzea hamabost egun baliodunek epean, GAOn eta udaletxeko ediktu-oholean iragarkia jarrita. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute aldaketa, eta osoko bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko eta behin betiko onartzeko erabakia hartzeko.
**Hirugarrena.-** Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.
**Laugarrena.-** Erabaki hau pertsonal sailari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.
**Bosgarrena.-** Iragarkia GAOn argitaratzea.

---

Gaia aztertuta, eta pertsonal eta barne antolakuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**<u>4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: eraikinen mantenu teknikari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.</u>**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Eraikinen mantenu teknikari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea.

IZASKUN QUEREJETA AGIRREk, Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntzako teknikariak ziurtatzen du 2022ko azaroaren 30eko dataz Pertsonal eta Barne Antolakuntzako Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

Eraikinen mantenu teknikari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea.

32/2021 Legegintzako Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoak kontratazioko baldintzak aldatu ditu.

Lehenik eta behin, desagertu egiten da obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuak egiteko aukera. Horrela, iraupen mugatuko lan-kontratua ekoizpenaren edo langilearen ordezkapenaren zirkunstantziengatik baino ezingo da egin, eta aldi baterako kontratuen arrazoi justifikatua dagoela uler dadin, beharrezkoa izango da kontratuan zehatz-mehatz zehaztea aldi baterako kontratazioaren gaikuntza-arrazoia, kontratua justifikatzen duten inguruabar zehatzak eta aurreikusitako iraupenarekin duen lotura.

Halaber, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 23koak, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 15. artikuluan arautzen du:

*“2. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, produkzioaren inguruabartzat hartuko dira jardueraren noizbehinkako eta aurreikusi ezinezko gehikuntza eta gorabeherek, enpresaren ohiko jarduera izan arren, aldi baterako desoreka eragiten dutenean enplegu egonkorraren eta eskatzen denaren artean, betiere 16.1 artikuluan jasotako kasuei erantzuten ez badiete.*

*Aurreko paragrafoan aipatutako gorabeheren artean, urteko oporretatik eratorritakoak sartuko dira.*

*Iraupen mugatuko kontratua ekoizpenaren inguruabar horien ondorio bada, kontratuaren iraupena ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan. Sektoreko hitzarmen kolektibo bidez, kontratuaren gehieneko iraupena urtebetera arte luzatu ahal izango da. Kontratua legez edo hitzarmenez ezarritako gehieneko iraupena baino laburragoa bada, behin bakarrik luzatu ahal izango da, alderdiek hala adostuz gero, eta kontratuaren iraupen osoak ezin izango du gehieneko iraupen hori gainditu.*

*Era berean, enpresek produkzioaren inguruabarrak direla-eta kontratuak formalizatu ahal izango dituzte, noizbehinkako egoerei, aurreikus daitezkeen egoerei eta iraupen laburreko eta mugatuko egoerei erantzuteko, paragrafo honetan aurreikusitako baldintzetan. Enpresek gehienez laurogeita hamar egunez erabili ahal izango dute kontratu hori urte naturalean, egun horietako bakoitzean egoera zehatzei aurre egiteko beharrezkoak diren langileak alde batera utzita. Egoera horiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute kontratuan. Laurogeita hamar egun horiek ezin izango dira jarraian erabili. Enpresek, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, kontratu horiek erabiltzeko urteko aurreikuspen bat helarazi beharko diete langileen legezko ordezkariei”.*

Brigadan, gainera, badaude aldi baterako programa bitarteko eta errelebo kontratuko zenbait plaza amaitzear, eta ezin dira berriro egin. Izan ere, estruktural kontsideratzen dira.

Hori guztia kontuan izanda, eraikinen mantenurako teknikari plaza berri bat sortzea beharrezko ikusten da Oñatiko Udalak dituen beharrei behar bezala erantzuteko.

I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean, TAOL) **90.1 artikuluak** honako hau xedatzen du:

"*Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, plantilla onartzea, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu guztiak barnean hartuta.*

*Plantillek arrazionaltasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioei erantzun beharko diete, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarriko dira; langile-gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrarekin ezartzen diren mugak gainditu.* "

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren **126.1 artikuluak** honako hau ezartzen du:

"*1. Plantilla horiek funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta aldi baterako langileentzat behar bezala sailkatuta dauden lanpostu guztiak hartuko dituzte, eta urtero onartuko dira aurrekontua onartzean, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikuluan adierazitako printzipioei erantzun beharko diete. Horiei erantsiko zaizkie aipatutako printzipioekin bat datozela egiaztatzen duten aurrekariak, azterlanak eta dokumentuak.*

*2. Plantillak honako kasu hauetan handitu ahal izango dira:*

*A) Gastuaren gehikuntza gastu arrunt hedaezinen beste unitate edo kapitulu batzuk murriztuta konpentsatzen denean.*

*B) Zuzkiduren gehikuntza lege-xedapenek ezarritako nahitaezko zerbitzuak ezartzearen edo zabaltzearen ondorio denean.*

*Paragrafo honetan ezarritakoak ez die kalterik egingo lege berezietan edo koiunturazkoetan jasotako muga espezifikoei.*

*3. Aurrekontua indarrean dagoen bitartean plantillak aldatzeko, aurrekontua aldatzeko ezarritako izapideak bete beharko dira.* "

II. Oñatiko udalak 2022ko aurrekontua onartu zuen 2021eko abenduaren 16ko osoko bilkuran eta behin betiko argitaratu zen 2022ko otsailaren 1eko GAO-n (20. Zenbakia) eta akats zuzenketa 2022ko otsailaren 2ko GAO-n (21. Zenbakia).

III. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, aipagarriak dira artikulu hauek:

14-18 artikuluak, aurrekontu orokorren gertuketa eta onespenari buruz.

21. artikulua. “*Langileen kredituak. Aurrekontuetako gastuen orrietan bildutako langileen gastuetarako*

*ordainketa-kredituak honelakoak izango dira: a) Toki erakundearen administrazioan eta organismo autonomoetan, muga izaerakoak izango dira, bai kredituaren zenbatekoari dagokionean, bai plantilari dagokionean.*"

IV. Plantilla onartzea Osoko Bilkurari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2-i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

V. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen **21. artikuluak** honako hau xedatzen du:

*"2. Lan-kontratuko langileei dagokienez, aurrekontu-plantilletan dagozkien kreditu-zuzkidurak ere sartuko dira, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoaren arabera ordain daitezkeen ordainsari-kontzeptuen arabera ordenatuta".*

VI. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, **11. Artikuluak** honakoa xedatzen du:

*"1. Langile lan-kontratudunak dira, lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeko edozein modalitate erabilita, idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak. Iraupenaren arabera, kontratua izan daiteke finkoa, mugagabea de aldi baterakoa.*

*2. Estatutu hau garatzeko emango diren Funtzio Publikoko legeetan ezarriko dira langile lan-kontratudunek zein lanpostutan jardun dezaketen finkatzeko irizpideak, betiere, 9.2 artikuluan ezarritakoa aintzakotzat hartuta".*

VII. Azaldutakotik ondoriozta daiteke, udal Aurrekontuaren zati denez, onartzeko prozedura hauena bera da, baita jendaurrean jartzeko eta argitaratzeko izapidea ere. Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

**Lehenengoa.**- Hasierako onespena ematea 2023ko urteko plantilla aldaketari, eraikinen mantenurako teknikari plaza sortzeko (C2 taldea): laboral finko plaza. Ezaugarriak gainontzeko eraikinen mantenurako teknikari plazek dutenen berak dira.

**Bigarrena.-** Onartutako aldaketa jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, GAOn eta udaletxeko ediktu-oholean iragarkia jarrita. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute aldaketa, eta osoko bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko eta behin betiko onartzeko erabakia hartzeko.

**Hirugarrena.-** Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**Laugarrena.-** Erabaki hau pertsonal sailari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

**Bosgarrena.-** Iragarkia GAOn argitaratzea.

---

Gaia aztertuta, eta pertsonal eta barne antolakuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023rako Lanpostuen Zerrenda onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** 2023rako Lanpostuen Zerrenda onartzea.

IZASKUN QUEREJETA AGIRREk, Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntzako teknikariak ziurtatzen du 2022ko azaroaren 30eko dataz Pertsonal eta Barne Antolakuntzako Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

2023rako Lanpostuen Zerrenda onartzea

2023rako Lanpostuen Zerrenda osatu da, 2021arekiko zeuden aldaketak eginez.

## OROKORRA

Aldaketa adierazgarriena Berariazko Osagarria termino ekonomikoetan azalduko dela da. Ez balorazioen puntuazioaren arabera.

## ALKATETZA

Komunikazio arduraduna-web masterra → Kendu egingo da, ez delako epe laburrean horrelako figurarik ikusten.

## IDAZKARITZA

Giza Baliabide eta Antolakuntza teknikaria→ Bitarteko funtzionarioz beteta (2022ko apirilaren 26tik)

Erregistro eta hiri-arretarako administraria→Lanpostu orokor bezala izendatu da.

Idazkaritzako administraria → 2 izatetik 1 izatera pasatu da, horietako bat %100eko lan jardunera igo eta HAZeko zerbitzura atxiki zelako (2022-04-28ko osoko bilkuran onartua).

Informatika laguntzailea→ Bitarteko funtzionarioz beteta.

## HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA

Atal hori sortu da. Bertan sortu diren lanpostuak (guztiak bitarteko funtzionarioz beteta):

- HAZeko koordinatzaile bat
- HAZeko hiru administrari

## KONTUHARTZAILETZA

- Kontuhartzailetzako administraria→ HAZeko administrarira atxiki da eta hemendik kendu.

## UDALTZAINGOA

- Udaltzainburua→ 0 plazatik plaza 1era pasatuko da, martxan dagoen barne promozioa dela eta. Gainera, Izendapen Asketik lanpostu berezira pasatuko da. Momentuz, hutsik dagoela ere adieraziko da.
- Agente lehena→ 3tik 2ra pasatuko da, horietako bat udaltzainburu izatera pasatuko da eta. Momentuz, 2 jabetzan agertuko da eta hurrengo urteko LPZn jasoko dira aldaketak.
- Udaltzainak→ Oharretan agertuko da 10 jabetzan daudela eta 2 hutsik
- Polizi administratiborako agentea→ Langileen zerrendatik kenduko da.
- Administraria→ Amortizatu egingo da, kultura administraria %100era baitago eta horrela jasota geldituko delako.

## EUSKARA

- Euskaltegiko zuzendaria→ Izendapen asketik lanpostu berezira aldatuko da. Gainera, oharretan agertzen dena ezabatuko da eta euskaltegiko irakaslerenean jarri: “*behin betiko plazarik gabeko postua. PZ36a behin-behineko izaeraz atxikitua*”.
- Euskara teknikaria→ lan harremanean, L jarri behar du, laborala baita.

- Euskaltegiko irakaslea→
  - Euskaltegiko zuzendariak zuen oharra bertan ezarri.
  - 2 jabetzan eta 1 hutsik agertuko da

HIRIGINTZA

- Lan eta zerbitzuen mantenimendu arduraduna→ Amortizatu egingo da.
- Brigada eta herri lanen arduraduna→ Jasota dago berez C1 azpitaldean egon beharko litzatekela. Hala ere, aldaketa hori ez dago eginda, baina esparru ekonomikoan C1 moduan hartzen da. Aldaketa hori jasoko da RPT honetan, eta barne promozio bat egin beharko da.
- Argiketaria→Izena aldatuko zaio eta “eraikinen mantenu teknikari” izatera pasatuko da.
  - Beste eraikinen mantenu teknikari bat sortuko da.
  - Jasoko da, bestalde, hutsik daudela aldi baterako kontratudun bitartez betea.
- Igeltseritzako ofiziala→ hutsik dagoela jartzen du eta aldatuko da, beteta baitago.
- Iturgina→Amortizatu egingo da.
- Peoia (galdaragintza)→ “Brigadako peoia” izatera pasatuko da. Baldintzen artean, galdaragintzan ezagutza izatea ezabatuko da.
- Kale garbitzaileak→ 2022ko apirilaren 28ko Osoko Bilkuran kale garbitzaileen beste plaza bat sortu zen eta, beraz, 7tik 8 izatera pasatuko da.

KULTURA

- Administraria→ kultura administrarira aldatu zaio izena eta jarduna %100era pasatu. Beraz, oharra kenduko da.

KIROLAK

- 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran kirol teknikariaren plaza sortu zen eta, gaur egun, bitarteko funtzionarioz beteta dago. Horrela jasota geldituko da aurtengo LPZn.
- Administraria→Amortizatu egingo da, kultura administraria %100eko lan jardunera pasatu delako.
- Kiroldegiko mantenu teknikaria→ Berez, hiru lanpostu daude sortuta (gaizki jasota dago aurreko LPZn), eta bat amortizatzear dago. Beraz, 2tik 3ra pasatuko da eta jasota geldituko da oharretan, bat amortizatu egingo dela.
- Kiroldegiko monitore soroslea→3tik 2ra pasatuko da. Hau da, bat amortizatu da.
- Kiroldegiko harreragilea→ Oharretan agertu beharko litzateke: 1 jabetzan eta 2 hutsik.
- Kiroldegiko garbitzailea→ plaza bakarra jasoko da, bat amortizatu da eta.

TEKNOLOGIA ETA INFORMAZIO GIZARTEA, GARAPENA eta TURISMOA

- Garapen eta turismo teknikaria→ lan harremanean, L agertu beharko litzateke, laborala da eta.

** Gaztelaniako bertsioan, egin beharreko aldaketak egin dira.*

# 2023

# - LANPOSTUEN ZERRENDA -

| KO DE | IZENA | PLA ZA | LAN-HAR | ESK ALA | AZPI-KALA | KLA SEA | AZPITALD | ESPEZ | ESK. BER. | BET. | BALDINTZ | EUS HE | D. DATA | DEDIK. | OHARRAK | DO | BO. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALKATETZA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 100 | ALKATETZAKO IDAZKARI PARTIKULARRA-ZINEGOTZIEI LAGUNTZA | 0 | F | AO | ADMB | - | C1 | Administrazio azpieskalari dagozkionak | EZ | IA | Oinarrizko ofimatika. Protokolo ezagupenak. Zuzendaritza idazkaria | 3 | 2007-3-29 | Esklusiboa | Bbetiko plazarik gabeko postua. | 19 | 16.400,48 |
| IDAZKARITZA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 1 | IDAZKARIA | 1 | GNF | GN | IDAZ | SARR | A1 | Gaikuntza Nazionaleko azpieskalari dagozkionak | BAI | GNI | Gaikuntza Nazionala. Oinarrizko ofimatika | 4 | 1994-12-31 | Esklusiboa | | 28 | 35.038,26 |
| 3 | GIZA BALIABIDE ETA ANTOLAKUNTZA TEKNIKARIA | 1 | F | AO | TEK | GMT | A1 | Zuzenbidean , Politika Zientzietan, ekonomian Lizentziaduna edo parekoa | BAI | LB | Giza Baliabideen kudeaketa. Funtzio Publikoa. Gizarte Segurantza. Lan arriskuen prebentzioa. Ofimatika aurreratua | 4 | 2004-12-22 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | Bitarteko funtzionarioz beteta | 25 | 22.316,03 |
| 4 | INFORMATIKA TEKNIKARIA | 1 | F | AB | TEK | EMT | A2 | LH III Informatikan edo parekoa | EZ | LO | Ofimatika aurreratua. Internet nozioak | 3 | 2002-1-31 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | Bitarteko funtzionario bidez beteta | 22 | 17.272,65 |
| 103 | ARTXIBOZAIN DOKUMENTALISTA WEB-MASTERRA | 1 | F | AB | TEK | EMT | A2/A1 | Artxibistikan diplomatua e do parekoa | BAI | LO | Ofimatika aurreratua. Internet | 4 | 2006-11-30 | Normala | | 22 | 16.229,84 |
| 6 | ERREGISTRO ETA HIRI-ARRETARAKO ADM. | 1 | F | AO | ADM | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika. Errolda eta estatistikari buruzko ezagutza | 3 | 1992-12-31 | Normala | | 19 | 14.276,95 |
| 5 | IDAZKARITZAKO AOT | 1 | F | AO | TEK | GMT | A1 | Zuzenbidean, Enpresagintzan, edo Ekonomi zientzietan lizentziatua, edo parekoa | BAI | LB | Ofimatika aurreratua, Zuzenbide administratiboa, kontratazioa, gardentasuna, datuen babesa. | 4 | 2021.3.25 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | | 25 | 22.676,27 |
| 8 | SOLDATA ORRIEN ADMINISTRARIA | 1 | F | AO | ADM | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika. Soldaten kudeaketari buruzko ezagutza | 3 | 1992-12-31 | Normala | | 19 | 13.859,83 |
| 7 | IDAZKARITZAKO ADM. | 1 | F | AO | ADM | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika. Idazkaritzari buruzko e zagutzak | 3 | 1992-12-31 | Normala | | 19 | 13.802,95 |
| | INFORMATIKAKO LAGUNTZAILEA | 1 | F | AB | TEK | TEK | C1 | Goi mailako batxilergoa, LHII Informtatikoa edo parekoa | EZ | LO | Ofimatika aurreratua | 3 | 2015-12-17 | Normala | Bitarteko funtzionario bidez beteta | 19 | 13.813,8 |

| KODEA | IZENA | PLAZA | LAN-HAR | ESKALA | AZPI-KALA | KLASEA | AZPITALD | ESPEZ | ESK. BER. | BET. | BALDINTZ | EUSHE | D. DATA | DEDIK. | OHARRAK | DO | BO. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | HAZeko KOORDINATZAILEA | 1 | F | AO | TEK/ADMB | TEK | C1/A2 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Ofimatika aurreratua | 3 | 2022-05-26 | Normala | Bitarteko funtzionario bidez beteta | 22 | 15.528,32 |
| | HAZeko ADMINISTRARIA | 3 | F | AO | ADMB | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika | 3 | 2022-05-26 | Normala | Bitarteko funtzionario bidez beteta | 19 | 13.821,91 |
| KONTUHARTZAILETZA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 2 | KONTUHARTZAILEA | 1 | GNF | GN | KONT HARTZ | SARR | A1 | Gaikuntza nazionaleko azpieskalari dagozkionak | BAI | GNI | Gaikuntza nazionala. Oinarrizko ofimatika | 4 | 1994-12-31 | Esklusiboa | | 28 | 34.241,93 |
| 143 | DIRUZAINTZA ETA KONTABILITATE TEKNIKARIA | 1 | F | AB | TEK | GMT | A1/A2 | Zuzenbidean/ Ekonomia zientzietan lizentziatua/gradua edo parekoa | BAI | LB | Diruzaintza, kontabilitate publikoa, aurrekontuak, zerga kudeaketa | 4 | 2017-12-31. | Normala | | 25 | 21.330,11 |
| 10 | ERRENTA ETA DIRU BILKETAKO TEKNIKARIA | 1 | F | AO/ AB | KUDE | | A2 | Zuzenbidean/ Ekonomia zientzietan diplomatua edo parekoa | BAI | LB | Tokiko zergak Oinarrizko ofimatika | 3 | 1998-4-1 | Normala | | 22 | 18.486,09 |
| 13 | GASTU ETA INTERBENTZIOKO ADMINISTRARIA | 1 | F | AO | ADM | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LB | Aurrekontua kudeatzeko nozioak. Kontabilitatea. Oinarrizko.fimatika. | 3 | 1993-12-31 | Normala | | 19 | 13.802,95 |
| 12 | HAZIENDA-SARREREN ADMINISTRARIA | 1 | F | AO | ADM | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LB | Dirubilketa- nozioak. Kontabilitatea. Oinarrizko ofimatika. | 3 | 1996-08-25 | Normala | | 19 | 13.802,95 |
| 14 | DIRU-BILKETAKO ADM | 1 | F | AO | ADM | | C1 | Administrazio Orokorreko Azpieskalari Dagozkionak | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika. Dirubilketari buruzko ezagutza | 3 | 2002-1-31 | Normala | | 19 | 13.821,91 |
| UDALTZAINGOA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 124 | UDALTZAINBURUA | 1 | F | AB | ZB | POL | C1/A2 | POL klaseari dagozkionak | BAI | LB | Polizia Ikastegia. Oinarrizko ofimatika. B gida baimena (1055/2015 ED) | 3 | 2007-3-29 | Esklusiboa | Hutsik | 22 | 23.377,80 |
| 125 | AGENTE LEHENA ( G/A TXANDA) | 2 | F | AB | ZB | POL | C1 | POL klaseari dagozkionak | BAI | LB | Polizia ikastegia. Oinarrizko ofimatika. B gida baimena (1055/2015 ED ) EAEko edozein udalerrietako udaltzain izatea. | 3 | 2006-11-30 | Normala | 2 jabetzan<br>* Bbetiko plazarik gabeko udaltzainburu lanopstura bbehineko izaeraz atxikitua | 18 | 17.424,33 |
| KODEA | IZENA | PLAZA | LAN-HAR | ESKALA | AZPI-KALA | KLASEA | AZPITALD | ESPEZ | ESK. BER. | BET. | BALDINTZ | EUSHE | D. DATA | DEDIK. | OHARRAK | DO | BO. |

| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16 | UDALTZAINA ( G/A TXANDA) | **12** | F | AB | ZB | POL | C1 | POL klaseari dagozkionak | EZ | LO | Polizia Ikastegia. | 2 | 1991-4-15<br>2001-9-27<br>2003-12-23<br>2003-12-23<br>2003-12-23<br>2005-11-29<br>2005-11-29<br>2005-11-29<br>2008-11-27<br>2008-11-27<br>2008-11-27 | Normala | 10 jabetzan<br><br>2 Hutsik bitarteko funtzionario bitartez beteta | 16 | 15.736,88 |
| | UDALTZAIN LAGUNTTZAILEA | 0 | F | AB | ZB | POL | C2 | POL klaseari dagozkionak | BAI | LO | B gida baimena | 2 | 2020.7.23 | Normal | | 14 | 10.902 |
| EUSKARA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 48 | EUSKALTEGIKO ZUZENDARIA | 0 | L | | | | A2/C1 | Euskaran diplomatua edo parekoa | BAI | LB | Administrazio kudeak publikoa. Oinarrizko ofimatika | 4TG | | Normala | | 22 | 18.031,05 |
| 16 | HEZKUNTZA TEKNIKARIA | 1 | F | AB | TEK | EMT | A2 | Euskaran diplomatua edo parekoa | BAI | LB | Dinamizazioa. Oinarrizko ofimatika | 4TG | | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | | 22 | 16.684,88 |
| 138 | EUSKARA TEKNIKARIA | 1 | L | AB | TEK | EMT | A2 | Euskaran diplomatua edo parekoa | BAI | LB | Dinamizazioa. Oinarrizko ofimatika | 4TG | | Lehenta-sunezkoa ( ohikoa) | Hutsik Behin behineko izaeraz beteta | 22 | 16.684,88 |
| 49 | EUSKALTEGIKO IRAKASLEA | 3 | L | | | | A2/C1 | Euskaran diplomatua/ irakaslea edo parekoa | EZ | LO * | Pedagogia. Oinarrizko ofimatika | 4TG | | Normala | Bbetiko plazarik gabeko postua. PZ36a bbehineko izaeraz atxikitua<br>2 jabetzan/1 hutsik | 20 | 14.750,95 |
| HIRIGINTZA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 22 | HIRIGINTZA UNITATEKO ARDURADUNA | 0 | F | AB | TEK | GMT | A1 | Goi mailako arkitekto | BAI | IA | Lurralde eta hirigintzako azterketak. Oinarrizko ofimatika. AutoCad | 4 | 1991-12-31 | Esklusiboa | Arkitektoaren behin behineko atxekipen bidez beteta | 27 | 32.326,96 |
| 137 | ARKITEKTOA | 1 | F | AB | TEK | GMT | A1 | Goi mailako arkitektoa | BAI | LO | Lurralde eta hirigintzako azterketak. Oinarrizko ofimatika. AutoCad | 4 | 2008-11-27 | Normala | Hirigintza Unitateko Arduradun lanpostua behin behineko izaeraz betetzen | 25 | 20.382,10 |
| 120 | AZPIEGITURETAKO APAREJADOREA | 1 | F | AB | TEK | RMT | A2 | Arkitekto teknikoa | BAI | LB | AutoCad. Oinarrizko ofimatika. Obren kontrola | 4 | 2005-11-29 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | | 23 | 22.145,39 |
| 113 | BAIMEN ETA JARDUERETARAKO ADMINISTRARIA | 1 | F | AO | ADMB | | C1/A2 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Baimen administrazioa eta kudeaketa. Oinarrizko ofimatika | 3 | 2007-3-29 | Normala | | 21 | 15.206,00 |
| 23 | HIRIGINTZA ADMINISTRARIA | 1 | F | AO | ADMB | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Hirigintza nozioak. Jarduerak eta baimenak. Oinarrizko ofimatika | 3 | 1996-8-25 | Normala | Bitarteko funtzionarioz beteta | 19 | 14.239,03 |
| 24 | BRIGADA eta HERRI- LANEN ARDURADUNA | 1 | L | | | | C1 | LHI lanbide klasikoetan edo parekoa | EZ | LB | B gida baimena . Talde lanen zuzendaritza | 3 | 2007-3-29 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | | 19 | 19.396,18 |
| 118 | IKUSKATZAILE, ZAINTZAILE/ JAKINARAZLEA | 0 | F | AB | ZB | ZER B | C1/C2 | LHI eraikuntzan edo parekoa | BAI | LB | Udaltzaina 45+urte, edo lantaldekoa | 3 | 2007-3-29 | Normala | | 17 | 625 |
| **KO** | **IZENA** | **PLA** | **LAN-** | **ESK** | **AZPI-** | **KLA** | **AZPITALD** | **ESPEZ** | **ESK.** | **BET.** | **BALDINTZ** | **EUS** | **D.** | **DEDIK.** | **OHARRAK** | **DO** | **BO.** |

| DE A | | ZA | HAR | ALA | KALA | SEA | | | BER. | | | HE | DATA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 25 | ERAIKINEN MANTENU TEKNIKARIA | 2 | L | | | | C2 | LHI lanbide klasikoetan edo parekoa | EZ | LB | Instalatzaile txartela. B motako gida baimena | 2 | 1994-12-31 | Lehenta-sunezkoa (noiz-behinka) | Hutsik Aldi baterako lan kontratuduna | 16 | 14.788,87 |
| 141 | ARGITERIAKO OFIZIALA | 1 | L | | | | C2 | LHI elektrizitatean edo parekoa | EZ | LB | Instalatzaile txartela. B motako gida baimena | 2 | 2011-12-22 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | Hutsik Aldi baterako lan kontratuduna | 16 | 14.826,80 |
| 140 | IGELTSERITZAKO OFIZIALA | 1 | L | | | | C2 | LHI igeltseritzan edo parekoa | EZ | LB | B motako gida baimena | 2 | 2011-12-22 | Lehenta-ohikoa) | | 16 | 14.826,80 |
| | KALE GARBIKETAKO ARDURADUNA | 1 | L | | | | C2 | LH1 lanbide klasikoetan edo parekoa | EZ | LB | B gida baimena.Talde lanen zuzendaritza | 3 | 2017.12.31 | Normala | | 18 | 16.665,92 |
| 28 | PEOI GIDARIA | 3 | L | | | | C2 | Eskola graduatua,, LH edo parekoa | EZ | LO | C gida baimena | 1 | 1991-4-15 2015-12-17 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | | 14 | 12.968,71 |
| | KALE GARBIKETAKO PEOI GIDARIA | 2 | L | | | | Laguntzako langilea | Eskola ziurtagiria | EZ | LO | C motako gida baimena | 1 | 2019.12.31 | Normala | | 12 | 15.149,12 |
| | IGELTSERITZAKO PEOIA | 1 | L | | | | C2 | Eskola graduatua,, LH edo parekoa | EZ | LB | B motako gida baimena Igeltseritzako ezagutzak | 1 | 2011-12-22 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa | Hutsik Aldi baterako lan kontratuduna | 14 | 12.968,71 |
| | BRIGADAKO PEOIA | 1 | L | | | | C2 | Eskola graduatua,, LH edo parekoa | EZ | LB | B motako gida baimena | 1 | 2015.12.17 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa | Hutsik Aldi baterako lan kontratuduna | 14 | 12.968,71 |
| | KALE GARBITZAILEA | 8 | L | | | | Laguntzako langilea | Eskola ziurtagiria | EZ | LO | B motako gida baimena | 1 | 2017.12.31 | | | 11 | 13.765,03 |
| 29 | PEOI LURPERATZAILE | 1 | L | | | | LT | Eskola ziurtagiria | EZ | LO | | 1 | 2007-12-31 | Lehentasu nezkoa (ohikoa) | | 11 | 14.201,11 |
| GIZARTE ZERBITZUAK | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 150 | GIZARTE ZERBITZUETAKO ARDURADUN-KOORDINATZAILEA | 0 | | AB | TEK | EMT | A2 | Gizarte Lanean, edo gizarte zientzietan diplomatua edo parekoa | BAI | IA | Kudeaketa,antolakuntza , gizarte langintzan ezagutza | 4 | 2017-12-31 | Esklusiboa | | 24 | 25.330,69 |
| 19 | GIZARTE LANGILEA | 4 | F | AB | TEK | EMT | A2 | Gizarte Lanean diplomatua edo parekoa | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika. Giza-hezkuntzan ezagutzak. Sikologian ezagutzak. | 3 | 1994-12-31 2020-12-17 | Lehenta-sunezkoa (noiz-behinka) | * Bbetiko plazarik gabeko GZko ardruadun lanpostura bbehineko izaeraz atxikitua | 21 | 16.191,92 |
| 126 | Emakumea, Adin txikikoak eta drogomenpekotasun alorreko GIZARTE LANGILEA | 1 | F | AB | TEK | EMT | A2 | Gizarte Lanean diplomatua edo parekoa | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika. Giza-hezkuntzan ezagutzak. Sikologian ezagutzak | 3 | 2010-11-25 | Lehenta-sunezkoa (noiz-behinka | | 21 | 16.191,92 |
| 21 | GIZARTE ZERBITZUETAKO ADM | 1 | F | AO | ADM | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Gizarte erbitzuetako nozioak. Oinarrizko ofimatika. | 3 | 1997-4-24 | Normala | | 19 | 13.821,91 |
| KULTURA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 37 | KULTURA UNITATEKO ARDURADUNA | 1 | F | AB | TEK | GMT | A1 | Lizentziatura zuzenbidean, zientzia politikoaetan, ekonomikoetan edo parekoan | EZ | LO | Administrazio kudeaketa Oinarrizko ofimatika | 4 | 1991-12-31 | Esklusiboa | | 25 | 25.463,41 |

| KODEA | IZENA | PLAZA | LAN-HAR | ESKALA | AZPI-KALA | KLASEA | AZPITALD | ESPEZ | ESK. BER. | BET. | BALDINTZ | EUSHE | D. DATA | DEDIK. | OHARRAK | DO | BO. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 44 | KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA | 1 | L | | | | A1/A2 | Kazetaritza, ikus-entzutezko komunikabideetan lizentziaduna edo parekoa | EZ | LO | Ofimatika aurreratua | 4 | 1994-12-31 | Lehenta-sunezkoa (noiz-behinka) | | 22 | 13.992,55 |
| 45 | IRRATI TEKNIKARIA | 1 | L | | | | A1/A2 | Kazetaritza, ikus-entzutezko komunikabideetan lizentziaduna edo parekoa | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika | 4 | 1993-12-31 | Normala | | 22 | 13.101,43 |
| 38 | LIBURUZAINA | 1 | F | AB | TEK | EMT | A2 | Bibliotekonomia eta dokumentazioan diplomatua edo parekoa | BAI | LO | Oinarrizko ofimatika. Internet ezagutzak | 3 | 1996-8-25 | Normala | | 20 | 15.262,88 |
| 39 | HAUR LIBURUTEGIKO ARDURADUNA | 1 | F | AB | TEK | EMT | A2 | Bibliotekonomia eta dokumentazioan diplomatua edo parekoa | BAI | LO | Oinarrizko ofimatika. Internet ezagutza | 3 | 1996-8-25 | Normala | | 18 | 12.058,62 |
| | KULTUR SUSTATZAILEA | 1 | F | AB | TEK | EMT | A2 | Giza zientzieta diplomatua edo parekoa | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika. Kultura ezagutzak | 4 | 2.016-12-22 | Lehenta-sunezkoa (noiz-behinak) | Hutsik | 20 | 13.859,83 |
| 40 | LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA | 2 | F | AB | TEK | TEK LAG | C1 | Goi mailako batxilergoa, LHII edo parekoa | EZ | LO | Ofimat6ika aurreratua | 3 | 2002-12-5<br>2006-11-30 | Normala | | 17 | 11.527,74 |
| 43 | KULTUR ETXEKO HARRERAGILEA | 1 | F | AO | LAG | | C2/LT | Eskola graduatua edo parekoa | EZ | LO | | 2 | 2002-12-5 | Lehenta-(noiz-beh) | | 15 | 10.750,37 |
| | KULTURA ADMINISTRARIA | 1 | F | AO | | | C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Ofimatika aurreratua | 3 | 2016.12.22 | Normala | Hutsik | 19 | 13.802,95 |
| KIROLAK | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 31 | KIROLDEGIKO ZUZENDARIA | 1 | F | AB | TEK | GMT | A1 | Kiroletan lizentziaduna edo parekoa | BAI | IA | Kirol entitateen kudeaketa. Oinarrizko ofimatika. | 4 | 1993-12-31 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | | 25 | 22.145,39 |
| | KIROL TEKNIKARIA | 1 | F | AB | TEK | EMT | A2 | Kiroletan diplomatua, graduatua edo parekoa | BAI | LB | Kirol entitateen kudeaketa. Oinarrizko ofimatika. | 4 | 2022-03-31 | Normala | Hutsik | 22 | 14.447,59 |
| 32 | KIROL ADMINISTRARIA | 1 | F | AO | LAG | | C2/C1 | Administrazio Orokorreko azpieskalari dagozkionak | EZ | LO | Ofimatika aurreratua | 3 | 1992-12-31 | Normala | | 18 | 14.220,07 |
| 34 | KIROLDEGIKO MANTENU TEKNIKARIA | 3 | L | | | | C2 | LH I ofizio klasikoetan edo parekoa | EZ | LO | B gida baimena | 2 | 1993-12-31<br>1994-12-31<br>2020.12.17 | Lehenta-sunezkoa (ohikoa) | Plaza 1 amortizatzear | 16 | 16.210,88 |
| 36 | KIROLDEGIKO MONITORE SOROSLEA | 2 | L | | | | C2/C1 | LH I kiroletan edo parekoa | EZ | LB | Igeriketa entrenatzailea, haur-soroslea | 2 | 1995-7-30<br>2001-1-25<br>1992-12-31 | Normala | Plaza 1 amortizatzear | 16 | 13.916,71 |
| 35 | KIROLDEGIKO HARRERAGILEA | 3 | F | | | | C2 | Eskola graduatua edo parekoa | EZ | LO | Oinarrizko ofimatika edo parekoa | 2 | 1992-12-31<br>1998-12-31<br>2001-1-25 | Normala | 1 jabetzan<br>2 hutsik | 15 | 12.987,67 |
| 33 | KIROLDEGIKO | 1 | L | | | | Laguntzako | Eskola ziurtagiria | EZ | LO | | 1 | 1994-4-15 | Normala | | 10 | |

| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GARBITZAILEA | | | | | | langilea | | | | | | | | | | 11.736,30 |
